



## **HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA**

### **2024ko urriaren 1ko bilkura**

Bi mila eta hogeita lauko urriaren lehenean, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

**Barkatuak zirenak** : AYÇAGUER Elorri, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2024ko irailaren 26

Afitxatze eguna : 2024ko irailaren 26

### **4. ERABAKIA: DIRULAGUNTZA ESKAERA PILOTA PLAZA BATEN ERAIKITZEKO ETA ESKOLEKIN LOTURAN LIRATEKEEN EREMU PUBLIKOEN ANTOLATZEKO**

*(7.10 nomenklatura)*

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio Arrosategia parkean pilota plaza baten eraikitze eta eskolekin loturan liratekeen eremu publikoak sortzeko proiektua. Auzapezak oroitarazi du 2024ko agorrilaren 13ko erabakiz, Arrosategia etxearen energia-berriztatzea egiteko dirulaguntzak eskatu zirela.

Auzapezak adierazi du Arrosategia parkean pilota plaza baten eraikitze eta eskolekin loturan liratekeen eremu publikoen sortzeko lanek 634 758 € ZK-ko kostua izanen dutela.

Auzapezak proposatu du ahalik eta dirulaguntza gehien eskatzea Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluari, DETR programan, Frantziako kirolaren Agentziari baita beste erakunde dituztatzailerei ere.

Honako finantzamendu plana proposatu du:

GASTUEN IZAERA	ZENBATEKOA ZK	SARTZEAK	ZENBATEKOA	%
Ikerketak	15 545 €	DETR / DSIL	253 903 €	%40
Obra kudeantza	42 213 €	Frantziako Kirol Agentzia	63 475 €	%10
OROTARA, IKERKETA/ZERBITZU-SARIEN ATALA	57 758 €			
Eskoletako sartzearekin loturan diren eremu publikoen segurtatzea	352 000 €	OROTARA, LAGUNTZA PUBLIKOEN ATALA	317 379 €	
Pilota plazaren eraikitzea	225 000 €	Funts propioak	317 379 €	%50
OROTARA, LANEN ATALA	577 000 €	OROTARA, AUTO-FINANTZAZIO ATALA	317 379 €	
OROTARA	634 758 €	OROTARA	634 758 €	

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ONARTU DU**, Arrosategia parkean pilota plaza baten eraikitzeko eta eskolekin loturan diren eremu publikoen sortzeko proiektua,
- **ONARTU DU**, lan horien egiteko 634 758 euroko zenbatekoa, zergaz kanpo,
- **ONARTU DU**, aurkeztu den finantzamendu plana,
- Auzapezak proposatu du ahalik eta dirulaguntza gehien **ESKATZEA** Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluari, DETR DSIL 2025 programan, Frantziako Kirolaren Agentziari baita beste erakunde dituztatzailerei ere.
- **AURREIKUSIKO DITU**, Herriaren aurrekontuetan, lan horien osoki egiteko beharrezkoak diren kredituak,
- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari ekintza horren burura eramateko beharrezkoak diren neurrien hartzeko eta agiri oro izenpetzeko.

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 11

Balitzko boz kopurua : 11

ALDE : 11

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko urriaren 1an,  
Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2024/10/4an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/10/4an.